



# OÑATI LETRARIK LETRA



**F**ELIX adiskidea riki eskaini nahi izan diot letra hau. **Felix Ugarte** zenari,

alegia. Hartarako arrazoienez zerrenda luze samarra aterako litzaidake, baina ondorengo hauek bakarrik azpimarratuko ditut: Oñati ezagutzen eta ezagutarazten egin zituen ahaleginengatik; gure herriko makina bat bazter, zoko eta zulo miatuz egindako ibilaldi asperkaintzengatik; hainbat mendi, haran eta haitzarte aztertuz burututako ikerketa mamitsuengatik; Oñatiko liburutegi, artxibo eta paper zahar mordo arakatzeengatik; arlo eta sail desberdinetako gaiez interesatzeko erakutsi zuen jakingura asekaitezengatik; hemendik kanpora joan zenean ere, inguru honetako ikerketa eta ikasketak ez baztertzegatik.

Bere temari eta setari azkenerearte eutsi ziolako, Oñatiko **geografia, historia, geologia, etnografia, toponimia, kirola** eta beste zenbait jakingai ikasteko, askotan ezinbestekoa zaigu Felixen lanetara jotzea. Berarekin dugun zorra nolabait berdintzeko, lan horiek batu, berrargitaratu, irakurri eta erabiltzea da modurik onena, dudarik gabe. Horixe gura zuen berak, hain zuzen.



**G**ORIBAR

lekuizena poliki-poliki ahaztu egin go zaigu. Berreskuratzeko ezer egiten ez badugu, behintzat. Punturarte baserria ezezik, auzoa ere bazen Goribar. Oraindik ere horrela da ofizialki, baina **Casablanca** edo **Otadui** toponimo berriagoek eremua "ohostu" egin diote. Duela gutxi bota dute hainbeste mende irau duen **Goribar-zaharra** maiorazko-baserria, Garaineko lantegia zabalteko. **Goribar-goiti** geratzen da gasolindegia baino goratxoago, nahiko egoera kaskarrean; baserri honek ere badu garrantzia, Oñatin izan dugun euskal idazle klasiko inportanteenaren sortetxea delako, bertan jaio eta bizi izan baitzen oñatieraz bi liburu idatzi zituen **Manuel Umerez Goribargoiti** (1757-1818) abadea.

Zer esan nahi ote du **Goribar** hitzak? Dokumentu zaharretara jo izan ez bagenu, ez genukeen behingoa asma-tuko berba honen etimologia. Zorionez, Erdi Arotik hasita agiri ugari samar heldu zaigu zeregin honetan lagun diezaguketanak. Batez ere Rosa



Aierbe eta Iñaki Zumalderen lanetan oinarriturik, toponimo honen historiari buruzko labur hau egin dezakegu: XIV. mendean **Bolibar** forma irakur daiteke 1388an oñatierrek Gebarako jaunari bidalitako protesta-gutun luze batean; hurrengo mendean (XV.ean) **Bolibar** nahiz **Boribar** aldaerak aurki ditzakegu, baina bigarrena sarriago (1475, 1477 eta 1479an); XVI.etik aurrera, aldiz, gaur egunerarte iritsi zaigun **Goribar** era nagutzen da.

Honenbestez, lekui-zen honen esannahia **bolu** + **ibar** hitzen elkarketatik argi daitekeela pentsa dezakegu. **Boluk** latinezko *molinum* forma zaharrean dauka bere jatorria eta bizkaieraren eremuan toponimia zabala eta aberatsa utzi digu: **Bolinaga, Bolintxo, Bolueta, Bolunburu** eta

**Bolibar**, jakina, Markina eta Eskoriatzan, besteak beste. Araotzen **Boliño** izeneko errota eduki dugu mende honetararte. Bolibarren esan-gura, bada, errota edo errotak dituen erreka ingurua izango genuke. Goribar baserrian ez dakigu errotarik izan zenik, baina goraxeago **Olalde** izeneko egoen zen XV. mendeaz geroztik, gutxienez. Auzo berean beheratxoago dagoen **Errota-barri** XVI. mendean amaierara orduko azaltzen zaigu paperetan. Beraz, **Simon Bolibar** askatzailea dela eta, Ameriketa aldean ezagunena eta hedatuena den euskal toponimo hau (**Bolibar**) izango genuke gure **Goribar** auzoaren jatorrian. Ardura gaitetzen gal ez dadin.

JERARDO ELORTZA

**Galizia**  
taberna

**Espezialitateak:**

Urdaiazpiko iberikoa  
Urdaiazpiko jabugo  
Sanchez Romero y  
Carvajal.  
Bokadiloak  
Pintxoak  
Plater konbinatuak

Zumalakarregi, 22  
Tfnoa: 78 22 08

**ALONÁ**  
AUTOESKOLA



Juan M. Garmendia



Ramon Irizar, 3- Behea  
Tfnoa: 78 24 91  
OÑATI